

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Erriberagoitiko Udalean peoien aldi baterako lan poltsa bat sortzeko oinarriak

Alkatetzaren 2025eko maiatzaren 20ko ebazpenaren bidez, 2025/224 espedienteari dago-kionez, Erriberagoitiko Udaleko peoi plaza lehiaketa bidez betetzeko lan poltsa bat sortzeko oinarriak eta deialdia onetsi ziren. Hona hemen deialdiaren edukia:

ERRIBERAGOITIKO UDALEAN PEOIEN ALDI BATERAKO LAN POLTSA BAT SORTZEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Xedea

1.1. Oinarri hauek Erriberagoitiko Udalak peoi plaza aldi baterako betetzea ahalbidetuko duen lan poltsa bat prestatzeko hautaketa prozesua arautzen dute.

Poltsa horrek hiru urteko indarraldia izango du, iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Alkatetzaren ebazpenaren bidez, urterokoetan luzatu ahal izango da, gehienez beste hiru urtez. Poltsa hori beharrezkotzat jotzen den bitartean egongo da indarrean, harik eta beste bat onartu arte.

Eginkizunak:

- Lorategiak, jardinerak, zuhaitzak eta berdeguneak ureztatzea, moztea eta mantentzea.
- Berdeguneak mantentzeko behar den beste edozein.
- Haizagailua, motosega, motozerra eta atoi gurdia duen ibilgailua erabiltzea.
- Udaleko ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak.
- Konponketa txikiak bide publikoetan eta udal eraikinetan.
- Laneko arriskuen prebentzioari eta babesari eta laneko segurtasunari buruzko neurriak betetzea.
- Erabilitako materialak eta tresnak antolatzeaz eta behar bezala erabiltzeaz arduratzea.
- Hierarkian gorago dagoen pertsonak agindutako antzeko beste edozein eginkizun.

1.2. Lanpostuaren ezaugarriak:

Lanpostuaren izena eta mota: peoia. Eskala: administrazio orokorra.

Azpieskala: administrazio berezia.

Arduraldia: lanaldi osoa.

Hizkuntza-eskakizuna: 1. HE (ez da derrigorrezkoa).

Kontratuaren ordainsaria lanpostuen zerrendaren arabera izango da.

1.3. Hautaketa sistema lehiaketa bidezkoa izango da.

1.4. Aplikatu beharreko arautegia. Oinarri hauetan berariaz aurreikusten ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubidearena; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapen legalen testu bategina onartzen duena; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarritzko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegi Orokorra onartzen duena; enplegu publikora sartzeko gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa (Langileen Estatutuaren 14. artikulua); 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarri-rakoa; eta aplikatzekoak diren gainerako arau-xedapenak.

Bigarrena. Publizitatea

Lan poltsa sortzeko hautaketa prozeduraren deialdia, merezimenduak aurkezteko epea eta oinarri osoak ALHAOn eta Erriberagoitiko Udaleko iragarki taulan argitaratuko dira.

Prozeduraren ondoriozko hurrengo argitalpenak Erriberagoitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira.

Hirugarrena. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak

3.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, izangaiek honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo, bestela, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.

b) Hemezortzi urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea eta gaixotasunik, eginkizun horiek betetzea eragozten duen akats fisikorik edo muga psikikorik ez izatea.

d) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea herri administrazioen edo autonomia erki-degoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabeko organoen zerbitzutik, eta ez egotea epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko ez funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, langile lan kontratudunen kasuan, baztertu edo desgaitutako lanpostuan egiten zituzten antzeko egitekoetan aritzeko ere. Desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

e) Ezinbestekoa da indarreko legeriaren arabera lanpostuan aritzeko ezgaituta ez egotea eta horretarako bateraezintasunik ez edukitzea.

f) Ezin izango dute parte hartu administrazioko karrerako funtzionarioek, edozein dela ere beren azpieskala eta edozein dela ere beren administrazio egoera.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, izangaiek honako baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:

a) Eskola ziurtagiria edukitzea.

b) B gidabaimena indarrean izatea.

Laugarrena. Eskabideak: aurkezteko modua eta epea

4.1. Eskabideak I. eranskinean jasotako eredua betez egin beharko dira, eta Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio.

4.2. Aurkezteko lekua:

Aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira, Erriberagoitiko Udaleko erregistro orokorrean, jendurreko egun eta orduetan: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Aurkezpen telematikoa: udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dira (<https://udalenegoitza.araba.eus/erriberagoitia/web/inicioWebc.do?opcion=noreg&entidad=RALTA>), sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko kualifikatuak oinarri dituzten sistemez baliatuz.

Era berean, eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan aurkeztu ahal izango dira.

Posta bulegoetan aurkeztutako eskaerak, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotakoarekin, gutun azal irekian aurkeztu behar dira, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezazkien, eskaerak aurkezteko epearen barruan ziurtatu baino lehen. Hala eginez gero soilik ulertuko da eskaerak posta bulegoan entregatu ziren datan sartu direla udalaren erregistro orokorrean. Eskaera da zigitaturik egon behar dena.

Eskabideak postaz aurkezten badira, epez kanpo jasotakoak onartzeko, ezinbestekoa izango da Erriberagoitiko Udaleko bulegoetan jakinaraztea eskabidea aurkeztu dela. Horretarako, posta elektronikoa bat bidali beharko da aralta.info@ayto.araba.eus helbide elektronikora, eskabidea aurkezten den egunean bertan, eta bidalketa egin izanaren frogagiria erantsi beharko da. Baldintza hori betetzen ez bada, izangaia ez da onartuko udalean haren eskabidea eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren jaso bada.

4.3. Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izango da, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Oinarri osoak Erriberagoitiko Udaleko iragarki taulan eta ALHAOn argitaratuko dira.

4.4. Erantsi beharreko agiriak:

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, gaztelaniaz edo itzulpen ofizialarekin batera:

- a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia edo agiri baliokidearen fotokopia, atzerritarren kasuan.
- b) Eskola ziurtagiriaren edo aipatutako maila akademikoa baino goragoko titulu edo heziketa baten fotokopia.
- b) B gidabaimenaren fotokopia.
- c) Jarraian zehazten den dokumentazioa, "7.1. Lehiaketa fasea" atalean deskribatutako merezimenduak alegatzeko:

1. Edozein administrazio publikotan enplegatu publiko gisa emandako zerbitzuak: lan bizitzaren txosten eguneratua eta emandako zerbitzuen ziurtagiria, dagokion administrazioak emana, zerbitzuak emandako aldia jasotzen duena.

2. Sektore pribatuan enplegatu gisa emandako zerbitzuak: lan bizitzaren txosten eguneratua eta emandako zerbitzuen ziurtagiria, dagokion administrazioak emana, zerbitzuak emandako aldia jasotzen duena.

Adierazitako dokumentazioarekin batera aurkezten ez diren merezimendu profesionalak ez dira baloratuko.

3. Egindako ikastaroak: prestakuntza tituluen, diplomen edo ziurtagirien bidez egiaztatuko da.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren aurkezten diren merezimenduen egiaztagirak ez dira onartuko. Alegatutako merezimenduak ez dira kontuan hartuko dagokion agintaritzak edo erakundeak emandako frogagiria aurkezten ez bada.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik, baimena ematen duzu inprimakian jasotako datuak datu pertsonalak babesteko araudian ezarritako moduan eta baldintzetan tratatzeko, prozedura hau izapidetzeko. Zure datuen tratamendua une bakoitzean indarrean dagoen administrazio legediak legitimatzen du. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak horretarako aukera ematen duenean edo berariaz beharrezkoa denean izan ezik.

Era berean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak baliatzeko aukeraren berri eman dizutela adierazten duzu. Horretarako, Erriberagoitiko Udalari mezu elektroniko bat bidaliko diozu helbide honetara: DPD-DBO@CUADRILLADEANANA.EUS; posta helbidea: Global Factory SL, Nerbioi kalea 3, 5. solairua, 48001 Bilbo (Bizkaia).

Bosgarrena. Izangaia onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak ebazpena emango du, onartuen eta baztertuen zerrenda onesteko. Ebazpena udaleko iragarki taulan eta udalaren webgunean argitaratuko da, eta baztertutako izangaiei akatsak zuzentzeko ematen zaien epea adieraziko da.

Zerrenda argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan, erreklamazioak jarri ahal izango dira onartutako eta baztertutako izangaiei zerrendaren aurka, bai eta huts materialak zuzentzeko eskatu ere. Epea amaitzean inolako erreklamaziorik egin ez bada, zerrenda behin betiko bihurtuko da, berriro argitaratu beharrik gabe.

Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira adierazitako epearen barruan baztertze arrazoia zuzentzen ez dutenak edo onartuen zerrendan sartzeko eskubidea justifikatuz omisioa alegatzen ez dutenak.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, behin-behineko zerrendaren aurka erreklamaziorik aurkeztuz gero, udaletxeko iragarki taulan eta udalaren webgunean argitaratuko da.

Onartutako izangaiei behin betiko zerrendan egoteak ez du esan nahi lan poltsen bidez hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla aitortzen denik. Hautatua izanez gero aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren ondorioztatzen bada baldintza horietakoren bat betetzen ez dela, hautatutako pertsonen prozeduran parte hartzearen ondoriozko eskubide guztiak galdu egingo dituzte.

Prozesu honen ondorengo iragarkiak eta kalifikazioak Erriberagoitiko Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Seigarrena. Hautaketa organoa

Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

- Epaimahaiburua: María del Mar Belategui Izar de la Fuente, eta ordezkari gisa: Lorena Llana Labakao.

- Idazkaria: Cesa Ortega Amestoy, eta ordezkari gisa: Isabel Caldelero Anguiano.

- Bokala: Julia Espina Diez, eta ordezkari gisa: Raquel Abascal Hermosilla.

Hautaketa organoetako kideak nor bere izenean arituko dira beti, hau da, organo horietan ezingo da jardun inoren ordezkartzan edo kontura.

Epaimahaia balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria edo, hala badagokio, haien ordezkioak egotea, eta betiere gutxienez bi kide egotea. Epaimahaikideek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio eta errekusazio araubidea bete beharko dute.

Bertaratutako kideen botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak epaimahaia, eta berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren kalitateko botoak ebatziko du.

Epaimahaia aholkulariak eta espezialistak sartu ahal izango ditu hautaketa prozesuan, kontsultarako eta izaera ez loteslearekin.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. artikuluan xedatutako inguruabarretako batean dauden epaimahaikideek ezingo dute esku hartu eta alkateari jakinarazi beharko diote. Era berean, izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte inguruabarretako batean badaude, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahai kalifikatzaileak deialdiaren oinarriak aplikatzetik eratorritako auzi guztiak ebatziko ditu, eta ahalmena izango du probak behar bezala egiteko egokitzat jotzen dituen erabaki guztiak hartzeko.

Zazpigarrena. Hautaketa sistema

Hautaketa sistema lehiaketa bidezkoa izango da.

7.1. Lehiaketa fasea:

Alegatutako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak gehienez ere 14 punturekin baloratuko dira, baremo honen arabera:

1. Esperientzia: 10 puntu gehienez.

a) Esperientzia administrazio publikoko lanpostuetan, deitutako lanpostuari lotutako zeregin eta eginkizunekin. Lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,6 puntu emango dira (gainerako zatikiak ez dira zenbatuko), eta gehienez 7 puntu lortu ahal izango dira.

b) Esperientzia sektore pribatuko lanpostuetan, deitutako lanpostuari lotutako zeregin eta funtzioekin. Lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,30 puntu emango dira (gainerako zatikiak ez dira zenbatuko), eta gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira.

2. Prestakuntza osagarria: 3 puntu gehienez.

Lanpostua lortzeko eskatutakoaz bestelako titulazioa izatea, deitutako lanpostuaren edukia-ekin zuzeneko zerikusia duena.

a) Eraikuntza eta obra zibilak, instalazio elektrikoak, ibilgailuen mekanika, mantentze-lanak edo lorezaintza lanbide arloko tituluren batean oinarritzko mailako titulazioa izatea: puntu 1.

b) Eraikuntza eta obra zibilak, instalazio elektrikoak, ibilgailuen mekanika, mantentze-lanak edo lorezaintza lanbide arloko tituluren batean erdi mailako titulazioa izatea: 2 puntu.

c) Elektrizitateari, igeltserotzari, iturgintzari, lorezaintzari, eraikinen mantentze-lanei edo ibilgailuen mantentze-lanei buruzko 250 orduko edo gehiagoko ikastaroa egin izana: 0,5 puntu emango dira ikastaro bakoitzeko, eta gehienez puntu 1 lortu ahal izango da.

d) Produktu fitosanitarioen erabilera profesionalerako oinarritzko txartela izatea: puntu 1.

3. Euskara titulua izatea: gehienez puntu 1.

a) 1. HE edo euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiri ofizialen bat, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailaren parekoa: puntu 1.

Zortzigarrena. Prozesuaren garapena, azken kalifikazioa, izendapen proposamena, kontratazioa, dokumentuen aurkezpena

Azken kalifikazioa lehiaketa fasean lortutako puntuen batura izango da.

Merezimenduen azken kalifikazioan berdinketa badago bi izangairen edo gehiagoren artean, eskaintako lanpostuaren antzeko eginkizunak dituzten lanetan administrazio publikoan izandako esperientziari buruzko apartatuan puntuaziorik altuena lortu duen izangaia hautatuko da.

Bi izangairen edo gehiagoren arteko berdinketak jarraitzen badu, izangaiekin elkarritzeta bat izango da lanposturako egokitasunarekin lotutako alderdi gehigarriak baloratzeko. Elkarritzeta erabakigarria izango da, eta berdinketa hausteko irizpide izango da.

Izangaiek alegatutako merezimenduak kalifikatzen amaitu ondoren, udalaren webgunean onartutako zerrenda argitaratuko da, lortutako azken puntuazio handienetik txikienera ordenatuta.

Hiru egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Alegazioak ebatzi ondoren, halakorik egonez gero, oinarri hauetan adierazitakoaren arabera deitutako lan poltsa sortzeko ebazpen proposamena helaraziko dio epaimahaiak organo eskudunari.

Horrela, poltsa bat sortuko da, eta izangaia lortutako guztizko puntuazio handienetik txikienera zerrendatuko dira. Epaimahaiak alkateari bidaliko dio zerrenda hori, eta Alkatearen dekretu bidez onartuko da. Dekretua webgunean argitaratuko da.

Bederatzigarrena. Deitutako prozeduraren ondoriozko teknikarien lan poltsaren kudeaketa eta funtzionamendu irizpidea

Lan poltsak hiru urteko indarraldia izango du, iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Alkatearen ebazpenaren bidez, urterokoetan luzatu ahal izango da, gehienez beste hiru urtez.

Lan poltsa udaleko enplegu publikoan aldi baterako langileak sartzeko kudeatzeko aurreikusitako tresna da; hala ere, bete beharreko eginkizunengatik lanpostu bat aldi baterako betetzeko hautaketa prozesu espezifiko bat egitea komeni bada, hautaketa prozesuetarako deialdia egin ahal izango da.

Lan poltsako hautagaien hasierako ordena hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren arabera izango da, puntuazio handienetik txikienera. Prozesuaren ondoriozko lan poltsa langile lan kontratudunen eta funtzionarioen aldi baterako beharrak betetzeko erabili ahal izango da.

Hamargarrena. Dokumentazioa

Lan poltsan puntuazio onena lortu duen eta izendapena proposatu zaion izangaiari deia egin ondoren, hiru egun balioduneko epean, deialdi honetan eskatutako gaitasun eta betebeharrak eta hautaketarako baloratu ziren alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko ditu, bai eta zinpeko adierazpen bat ere, honako hauek jasotzen dituen: ezintasun edo bateraezintasun kausaren batean ez dagoela eta diziplina espediente bidez ezein administrazio publikotako zerbitzutik bereizita ez dagoela. Horrez gain, eginkizunak normaltasunez betetzea eragotzen dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria ere aurkeztu beharko du.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaia ez baditu eskatutako baldintzak egiaztatzen, ondorioz gabe geratuko dira bere jardun guztiak, eskaeran datu faltsuak jartzeagatik izan lezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Halakoetan, alkateak onartu duen hurrengo izangaia izendatzeko proposamena egingo du, puntuazio hurrenkeraren arabera.

Lan poltsatik kanpo geratzeko zioa izango dira hautagaiak lan poltsan parte hartzeari uko egitea, oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa epe barruan ez aurkeztea, lanpostuaz ez jabetzea eta eskainitako lanpostua betetzeari uko egitea, salbu eta, azken kasu horretan, arlo publikoan edo pribatuan lanpostu bat betetzen ari dela egiaztatzen bada edo osasun agiri ofizialen bidez egiaztatutako gaixotasuna badago.

Hamaikagarrena. Azken arauak

Oinarri hauek lotesleak dira administrazioarentzat, epaimahaiarentzat eta deialdian parte hartzen dutenentzat, eta, bai deialdi hau, bai oinarriak, bai deialdiaren eta epaimahaiaren jarduketan ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean zehaztutako kasuetan eta moduan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2025eko maiatzaren 20a

Alkatea

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ

I. ERANSKINA

ONARTZEKO ESKAERA

Interesdunaren datu pertsonalak eta jakinarazpenetarako helbidea (nahitaezkoa):

Izen-abizenak:

IFZ:

Helbidea:

Posta kodea:

Udalerria:

Probintzia:

Jakinarazpen elektronikoa (halakorik izanez gero).

Gaitutako helbide elektronikoa:

Telefono finkoa edo mugikorra (nahitaezkoa):

Posta elektronikoa (nahitaezkoa):

Adierazten dut: 20.....(e) koaren(e) ko ALHAOn (..... zk.) argitaratutako Erriberagoitiko Udalean peoien lan poltsa betetzeko lehiaketa deialdia ikusi dudala.

Eta honako hau adierazten dut, neure ardurapean:

— Espainiako nazionalitatea dut, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

— Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala dut.

— Gutxienez hemezortzi urte ditut eta ez dut derrigorrezko erretirorako gehieneko adina gainditu.

— Ez nago diziplina espediente bidez baztertuta administrazio publikoen edo autonomia erki-degoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabeko organoen zerbitzutik, eta ez nago epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko ez funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, langile lan kontratuduna izanik, baztertu edo desgaitutako lanpostuan egiten nituen antzeko egitekoetan aritzeko ere. Beste estatu bateko herritarra izanik, ez nago desgaitua edo horren pareko egoera batean, eta nire estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez dut.

— Badauzkat deialdian eskatutako edo merezimendu gisa alegatutako titulazioa, prestakuntza, lan esperientzia eta hizkuntza-eskakizuna.

— Horregatik guztiagatik, bat etorritik urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoarekin, udal horretako peoi lanpostua betetzeko hautaketa prozesuan onartua izateko eskatzen dut.

Data eta sinadura:

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla.

....., 20.....(e) koaren(a).

Eskatzailea.

Oharra: Eskaera honekin batera, eskatzen diren betekizunak eta alegatzen diren merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia aurkeztu behar da, bai eta aurkeztzen diren dokumentuen aurkibidea ere.

Eskaera Erriberagoitiko alkateari zuzendu behar zaio eta oinarrietan adierazitako posta helbidera edo egoitza elektronikora bidali.